

URRETXU ETA ZUMARRAGAKO BESTE ERLIJOAK

·Zuek bai jakin!: Jesus Iturbe ·Elkarrizketa: Antxiñe Mendizabal eta Koldo Cadierno

·Izerdi patsetan: Aitor Esnal, futbolari gazteen ispilua ·Boteprontoan: Alberto Lubian

Herri Aldizkaria Otamotz

2007ko

azaroa

131. alea



PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GO! DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Urretxu eta Zumarragako beste erlijioak
- 11 Erreportajea**
Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Zein da gehien gustatzen zaizun herriko txokoa?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Argazki zaharra**
- 17 Gure gomendioa**
- 18 Klik eta klik**
Josu Perez
- 20 Zuek bai jakin!**
Jesus Iturbe
- 24 Elkarrizketa**
Antxiñe Mendizabal eta Koldo Cadierno, historiari begira
- 28 Izerdi patsetan**
Aitor Esnal, futbolari gazteen ispilua
- 32 Gure aholkuak**
- 33 Literatura**
- 34 Botereprontoan**
Alberto Lubian



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Herriko beste erlijioak

Euskaldunok fededunak garela esan izan da beti. Hala ote? Garai batean sinesmendun asko zeuden eta ia denak katolikoak. Gainontzekoak erdi ezkutuan jardun behar ziren. Egun, gure artean, sinesle gutxiago eta erlijio gehiago daude. Urretxun eta Zumarragan, elizez gain, bi bilgune daude: Jehovaren lekukoaren erreinuko aretoa eta musulmanen meskita. Batzuekin eta besteekin izan gara euren erlijioez eta ohiturez hitz egiten.

Jhovaren lekukoak: “Bibliak kristauok nolakoak izan behar dugun dio eta eredu hori ahalik eta zorrotzen jarraitzen saiatzen gara”



Jhovaren lekukoak Zumarragako egoitzan, biblia irakurtzen.

Nork ez ditu Jehovahren lekukoak ezagutzen? Atez ate ibili ohi dira, txukun jantzita, entzun nahi dituenari bibliaren nondik norakoak azaltzen. Horretaz gain, astean hirutan Urdaneta kaleko egoitzan biltzen dira biblia irakurtzeko. Beloki pilotaleku ondoko etxearen atzealdean dute lokala. Lehen San Isidro kalean elkartzen ziren, baina duela 20 bat urte egungo egoitza erosi zuten. Duela gutxi berri dute. Bertan, Migel Anjel Alvarezek eta Jairo Ugartemendiak hartu gintuzten eta gure galdera guztiak adeitsu erantzun zituzten. Migel Anjelek 10 bat urte daramatza Zumarragan bizitzen. Emaztea Ordiziakoa du, baina hemen gustuko etxea topatu zuten eta bertara etortzea erabaki zuten. Beasaingo kongregazioan ezagutu zuten elkar. "Biok bertara joaten ginen eta, azkenean, elkarrekin hasi ginen. Jendea elkartzen den gainontzeko tokietan bezala, gurean ere bikoteak sortzen dira", dio.

Jairo Ugartemendia Anoetakoa da, baina emaztea hemengoa du. Hori dela eta, bertan jarri ziren bizitzen. Bere emaztea ere Jehovahren lekukoa da, baina ez zuen kongregazioan ezagutu, lagun batzuen bitartez baizik. Bien emazteak euren sinesmen berekoak dira, baina bikote misto asko ere badaude. "Gure artean denetik dago. Zumarragan bikote misto asko daude".

Ugartemendia betidanik da Jehovahren lekukoa, bere gurasoak erlijio berekoak baitira. Alvarez, ordea, gaztetan egin zen. "37 urte ditut eta 15ekin bataiatu nintzen. Nire gurasoek eta nire anai batek ez dute nire erlijioa jarraitzen, baina nire bi arrebek bai. Nire arreba nagusia izan zen lehena, erlijio hau ezagutu zuen eta interesgarria iruditu zitzaion. Bere atzetik, beste arreba

eta biok etorri ginen. Ez da bat-bateko kontua. Biblia irakurri behar da eta bertan esaten denak norbera konbentzitu egin behar du".

Pentsa daitekeen moduan, gurasoak katolikoak dira eta ez zuten ondo hartu. "Hori guztia duela 25 urte gertatu zen. Egun natural ikusten da, baina orduan ez. Dena den, erlijio hau eta gure lagunak ezagutu dituzten heinean, gauza bere onera etorri da. Toleranteak dira eta seme-alabak gustura ikusten dituztenez... Anaiak bolada txarra pasatu zuen eta

"Beste erlijio batzuek egiten dutena eta guk biblian irakurtzen duguna guztiz ezberdinak dira"

gurasoek Jehovahren lekuko egitea gomendatu zioten!", azaldu du.

Ugartemendiak ez dutela inor behartzen argi utzi nahi du. "Ez ditugu haurrak bataiatzen, eurek erabaki behar dute bataiatu nahi duten ala ez eta noiz. Nik 13 urterekin hartu nuen erabakia".

Beste erlijio batzuetan gurasoek erabakitzen dute seme-alaben izenean. Baina, zer gehiagotan bereizten dira gainontzekoengandik? Argi utzi nahi dute euren ez dela katolikotasunaren adar bat. "Gainontzekoengandik bereizten gaituena zera da: biblia, katolikoek erabiltzen duten bera, Jainkoaren hitza dela uste dugu. Bibliak kristauok nolakoak izan behar

garen dio eta eredu hori ahalik eta zorrotzen jarraitzen saiatzen gara", dio Jairok. Ez dute uste katolikoek liburuak dioena goitik behera betetzen dutenik. "Beste batzuk beste alde batetik doazela ikustekak, pena ematen digu. Erlijio kristau guztiak biblian oinarritzen direla suposatzen da, baina... Pertsona batek zintzoa dela esan dezake, baina ekintzekin erakutsi behar du. Erlijio zehatz bat ona den jakiteko, jarraitzaileek egiten dutena begiratu behar da. Beste erlijio batzuek egiten dutena eta guk biblian irakurtzen duguna erabat ezberdinak dira", aipatu du Alvarezek.

Bibliak dioena jarraitzen saiatzeaz gain, nahi duen orori azalpenak ematen dizkionte. "Gure egintza nagusia biblia ezagutzera da. Doaneko ikastaroak ematen ditugu", dio Ugartemendiak. Itun zaharra eta itun berria aztertzen dituzte. "Sortzen zaizkigun galderentzako zer erantzun dituen topatzen saiatzen gara: Jainkoa nor den, zergatik gauden hemen, zergatik sufritzen dugun... Beste erlijio batzuek galdera guztiak ez dituztela erantzuten uste dugu".

Beste erlijioen erantzun batzuk okerrak direla uste dute. "Nor bait hil denean Jainkoak eraman duela esaten dute, baina hori ez da bibliak dioena. Ez du inon jartzen Jainkoak pertsona onak eramaten dituenik. Jainkoak Adani hautsa zela eta hautsa izango dela esan zion, besterik gabe. Ez du jendearen bizitza eta heriotza kontrolatzen. Autoan orduko 200 kilometroko abiadan dabilenak edo bizimodu desegokia daramanak, hiltzeko aukera gehiago ditu", dio Alvarezek.

Baina, zein da bizimodu egokia Jehovahren lekukoek ustez? Bibliaren

printzipioetan oinarritzen dena, noski. "Bertako printzipio moralak jarraitu behar dira. Besteei guretzat nahi ez duguna ez egiteko esaten du, adibidez. Horrekin bakarrik, gizartearen ia arazo guztiak konponduko genituzke". Dena den, testu sakratuak norbanakoari nahikoa askatasun ematen diola uste dute. "Printzipioak dira, ez legeak. Arazo eta egoera ezberdinei aurre egiteko aukera ematen dute. Dibertsitatea ondo ikusita dago, ez ditu bizitzaren alor guztiak kontrolatzen. Bi pertsona oso kristau onak izan daitezke, nahiz eta elkarren zeharo ezberdinak izan", azaldu du Alvarezek.

Biblia ahalik eta zorrotzen jarraitzen saiatzen direla diote. "Gure bizitzan eragina izatea nahi dugu. Ez da etiketa sozial hutsa. Katoliko askok ezkontza eta hiletetan bakarrik bizi dute erlijioa. Guretzat, ordea, eguneroko kontua da. Horregatik elkartzeko gara astean hirutan eta joaten gara etxez etxe", esan du Ugartemendiak. Gainontzeko erlijioetako jendearekin harreman ona dutela diote. "Besteek diotenarekin ados egon gaitezke edo ez, baina indarkeriaren aurka gaude. Errespetatu egiten ditugu, nahikoa dugu geroz eta hobeak izaten saiatzearekin. Ez dakit besteok nola ikusten gaituzten", aipatu du Alvarezek.

Ondo ikusi edo ez, aspaldiko ezagunak dira. Izan ere, ere euren erlijioa oso zaharra dela diote. "Gutako lehena Abel izan zela uste dugu. Espainian XX. mende hasieran hasi ginen. Frankismo garaian gure erlijioa, beste asko bezala, debekatu egon zen. Oker ez banaiz, 1972an onartu gintuzten", azaldu du Migel Anjel Alvarezek.

la zerotik hasi behar izan ziren. "Ordura

arte ezkutuan lan egiten genuenez, lan asko genuen egiteko. 35 urte hauetan asko aurreratu dugu. Espainian 100.000 lagun inguru gara eta Gipuzkoan 1.500 bat. 22 kongregazio ditugu bertan, herri nagusi guztietan. Zumarragatik gertuen daudenak Beasaingo eta Bergarako dira. Zumarragan 70 bat lagun elkartzeko gara: Urretxu, Zumarraga, Legazpi eta inguruko herri txikiak", diote.

Egun, 230 herrialde baino gehiagotan daude. "Askatasun eza dagoen tokietan gure egintza debekatu dago. Mendebaldean, berriz, txoko guztietan gaude. Erlijioak indar handia duen tokietan gaude sustraituen: Afrikan, Ipar

"Gipuzkoan 1.500 lagun inguru gara eta 22 kongregazio ditugu. Herri nagusi guztietan gaude"

Amerikan, Hego Amerikan... Arabiar herrialdeetan eta Asiako toki batzuetan, Txinan adibidez, oso indar gutxi dugu", aitortu dute. Dena den, musulmanekin zenbait parekotasun dituzte. Liburuari garrantzia handia ematen diote, esaterako. "Teorian behintzat, erlijioak euren eta gure egunerokotasunean garrantzia du. Bestalde, koranean biblia aipatzen da".

Itun zaharra eta berria euren lanaren ardatza direla esan dute, baita etxerik etxe joaten direla ere. Baina, nola lan egiten dute? "Gure egoitzetan biblia ikasten

dugu. Hori dela eta, hitzaldietarako presatutako aretoak ditugu. Horretaz gain, etxez etxe joaten garenez, besteen aurrean hitz egiten ere ikasten dugu. Jesusek hitz egiten zuen moduan hitz egiten ikasten dugu. Analfabetismoa dagoen tokietan irakurtzen eta idazten irakasten dugu, liburua irakurtzeko ezinbestekoa baita, noski", azaldu du Alvarezek.

Beste erlijioetan bezala, hemen ere gidariak daude. "Guztiok berdinak gara, baina gauzak ondo joan daitezke, gidariak behar dira. Lehen kristauen antolamendua jarraitzen saiatzen gara: haiek superintendentez edota agureez hitz egiten zuten. Dohain zehatz batzuk zituzten eta besteei irakastearen ardura zuten. Dohain horiek dituztenak aukeratzen ditugu superintendente izateko. Dena den, denok predikatzen dugu eta inork ez du kobratzen bere lanaren truke. Egoitzara gure aisialdi denboran etortzen gara. Bestalde, kontribuzio kuxkak daude eta bakoitzak ahal duena edo egoki deritzona jartzen du. Ez dugu kontrolatzen bakoitzak noiz ematen duen dirua eta zenbat jarri duen, baina hilerok zenbat bildu den azaltzen dugu", aipatu du Ugartemendiak.

Erlijioak euren bizitzan zer nolako garrantzia duen ikusirik, euren arteko harremana estua dela pentsa daiteke. "Hemendik kanpo ere askotan elkartzeko gara, baina modu naturalean. Adiskidetasuna sortzea normala da, bana gure artean ere denetik dago: batzuek nahiago dute hemendik irten eta etxera joatea eta besteak koadrilan ibili zaleak dira", azaldu dute.

Etxez etxe joateak euren arteko harremana estutzen laguntzen du, baina askotan ez dela lan gozoa onartzen dute. "Erantzun txar asko jasotzen ditugu, baina

Ostegunero 70 bat lagun elkartzen dira Zumarragako egoitzan.



mundu mailan egunero 700 bat lagun elkartzen zaizkigu eta horrek asko animatzen gaitu. Gure ustez biblia baino gauza hoberik ez dago eta jendeari lagun diezaioke. Jehovaren lekukoak egin ez, baina gure printzipioak praktikan jarri dituen jendea ezagutzen dugu. Gu ez gaitu inork behartu eta, era berean, guk ere ezin dugu inor behartu. Gure lana betetzearekin konformatzen gara. Gure ardura, gure inguruko guztiek gure aukeraren berri izatea da", diote.

Oro har, ondo ikusiak daudela uste dute. "Denetik dago, baina ezagutzen gaituztenek normal begiratzen gaituzte. Ezagutzen ez gaituztenek, berriz, erreze-loa izaten dute. Hemen denok elkar eza-gutzen dugu eta gustura sentitzen gara". Horrek ez du esan nahi egungo bizimoduarekin bat datozenik. "Gure behar izpiritualek ez dute merezi duten arreta jasotzen. Jendeak bere buruari zenbait galde-ra egiten dizkio, baina batzutan bere erli-

jioak ez ditu erantzuten. Bestalde, egoera politikoak ere atsekabea sortzen du. Jende asko babesgabe sentitzen da eta gu ere mesprezatu egiten gaituzte. Jainkoaren bidea utzi izanagatik sentitzen

"Aisialdiaren zati handi bat erlijioari eskaintzen diogu, baina gu ere merkatal guneetara edo mendira joaten gara"

dira asko horren gaizki: ez dago balorerik, You Tuben indarkeria bideoak jartzen dira... Horrek guztiak lan egiteko indarra ematen digu. Gu laguntzen gaituen horren beharra dagoela ikusten dugu. Dena den, gu ere ez gaude arazoetatik eta atsekabetik erabat salbu", onartu dute.

Izan ere, ez dute uste euren bizimodua gainontzekoenaren horren ezberdina denik. "Gure bizitzaren ardatza erlijioa da, baina ez gara aszetak edo arraroak. Gu ere gozatzearen alde gaude, lan egin behar dugu, hipoteka ordaindu behar dugu, familiari jaten eman behar diogu... Gu ere gizarte honetan bizi gara. Gure ekintzetan bibliak dioena betetzen saiatzen gara eta aisialdiaren zati handi bat erlijioari eskaintzen diogu, baina gu ere zinera, merkatal guneetara, Donostiara edo mendira joaten gara", aipatu dute.

Euren jardura guztietan biblia kontuan izan behar dute, noski. Dibortzioa adulterio kasuetan bakarrik onartzen dute eta ezkondu gabe elkarrekin bizitzea eta abortua ez dituzte onartzen. Antisorgailuen erabilerari, ordea, ez diote uko egiten. Homosexualitateari dagokionez, ez dute begi onez ikusten eta ez dute uste berezkoa denik, gizarteak bultzatutakoa baizik.

Musulmanak: "Jainkoaren izenean hiltzen dutela diote, baina islamak buruaz beste egitea eta inor akabatzea debekatzen du"



Imana islamaz mintzatzen, Zumarragako meskitan. Bertako argazki guztiak Gotzon Aranburuk atera ditu.

Musulmanek ere duela urte asko ireki zuten egoitza gure artean. Lehen meskita Zumarragako Urdaneta kalean izan zuten eta orain Euskal Herria hiribidean dute, Alameda taberna ondoan. Bertara inguruotako 200 bat lagun joaten dira eta txiki gelditu zaie. Hori dela eta, ondoko lokala erosi nahi dute. Driss Elbouanani marokorrek hitz egiten izan gara.

Elbouanani duela urte asko etorri zen Euskal Herrira. "1985ean heldu nintzen, lan egiteko asmoz. Gure asmoa denboraldi batean lan egitea eta gero itzultzea da, baina azkenean denok gelditu egiten gara. Hemen hobeto bizi gara, seme-alabek ez dute alde egin nahi...", aipatu du.

Marokorrek Ermuan eman zituen lehen hiru urteak. "Gero Zumarragara etorri nintzen, hemen etxebizitza aurkitu bainuen. Saltzaile ibiltaria naizenez, berdin zait toki batean edo bestean bizi. Zumarragan bi urte eman ostean, Markinara joan nintzen eta gero Azpeitira. Bertan zazpi urte eman nituen. Zumarragara itzuli nintzen eta dagoeneko ez naiz hemendik mugituko. 20 eta 3 urte bitarteko bost seme-alaba ditut eta ez dute hemendik irten nahi".

Elbouanani soldadore lanetan aritu zen, baina nahiago du saltzaile ibiltaria izan. "Hala askatasun handiagoa dut haurrei laguntzeko, ikastetxeko bileretara joateko...". Emaztea ere marokarra du. "Etorri

nintzenez ez konduta nengoen jada eta emaztea handik bi urtera etorri zen, seme zaharrenak lau hilabete besterik ez zituzten", azaldu du.

Euskal Herrian urte asko daramatzenez, ederki asko ezagutzen du islamak hemen izan duen bilakaera. Garai batean islamak sekulako indarra izan zuen iberiar penintsulan eta Euskal Herria hegoaldera heldu zen. Islamiarrak bota egin zituzten, baina azkenaldian euren erlijioa berrindartzen ari da inguruotan. "Geroz eta jarraitzaile gehiago ditugu. Lehen ez zegoen meskitarik eta orain, berriz, asko daude. Lehenengoa Eibarren ireki genuen, 80ko hamarkadan. Hurrengoak Zumarragako

eta Bilbokoa izan zirela uste dut. Orain Bilbon hiruzpalau daude, Azkoitian beste bat, Erreterian, Nafarroan... Kontuan izan behar da geroz eta islamiar gehiago daudela eta erlijioaz aritzeko toki bakarra meskita dela. Ezin gara etxe batean elkar-tu errezatzeko", dio Elbouananik.

Hala, Zumarragako meskita txiki gelditu zaie. "Ostirala gure egun handia da eta 200 bat lagun elkartzeko gara. Batzuek kanpoan errezatu beharra dute. Bergara, Beasain, Tolosatik... etortzen da jendea. Marokorak, aljeriarrak, pakistandarrak eta senegaldarrak gara nagusi".

Urdaneta kaleko lokalean alokairuan izan ziren, baina egungoa erosi egin zuten. "Ondoko lokala salagi dago eta erosi egin nahi dugu. Hilero dirua jartzen dugu: bakoitzak ahal duena, 10-20 euro. Horrekin gastuetarako bakarrik dugu: ura, argia, lokalaren aseguru eta imanaren soldata. Hori dela eta, gainontzeko meskitetan egoitza berria erosteko laguntza eskatzen ari gara. Meskita handietara joan behar dugu eskean. Bidaia bakoitzean 3.000 euro inguru lor daiteke", azaldu du.

Edozein lokal erabili daiteke meskita gisa, baina zenbait baldintza bete behar dira. "Udalari, Eusko Jaurlaritzari, Justizia ministerioari eta Madrileko Islamiar Zentroari baimena eskatu behar zaie. Gehienok marokorak garenez, gure kontsulatuaren babesa dugu. Badaki arduradunak nortzuk garen daki eta fidagarriak garela zin egin du. Etxerik ez duten asko hona etortzen da lo egiteko asmoz eta ez diegu uzten. Arazorik egongo balitz, gu izango ginatke arduradunak. Gutxi batzuek bakarrik dugu hementengo giltza".

Meskitak ez du aparteko apaingarririk. "Lurrean alfonbrak ditugu, baina hotzari aurre egiteko da. Izan ere, lurrean eser-tzeko ohitura dugu. Erlijioari buruzko liburuak ere baditugu", aipatu du.

Kontuan izan behar da bertan erlijioaz bakarrik mintza daitekeela. "Hemen ezin da negoziarik eta halakorik egin. Jainkoari barkamena eskatzera etortzen gara. Egunean bost aldiz otoitz egiten dugu eta meskitak horretarako tokia eskaintzen digu. 6.20ean, 13.00etan, 15.40ean, 18.00etan eta 19.30ean errezatzen dugu, aldi bakoitzean 5-10 minutuz. Lan egiten dugunez, ez gara bost aldiz etortzen. Etxean edo lantokian ere otoitz egiten dugu".

"Ostiraletan 200 bat lagun elkartzeko gara.

Senegal, Aljeria,

Pakistan eta Marokokoak gara nagusi"

Horretarako ez dute imanaren beharrik. "Guztiok dakigu errezatzen. Ostiraletan, ordea, imana beharrezkoa da. Izan ere, berak erlijioa ondo ikasi du eta egun horretan azalpenak eta jarraibideak ematen dizkigu: ordu erdi inguruz. Meskita bakoitzak bere imana du". Meskitan zenbait arau bete behar dira. "Guztiok oinutsik sartu behar gara. Izan ere, lurrean esertzen gara eta zapatekin sartuko bagina zikindu egingo ginatke. Bestalde, garbi eta ondo jantzita etorri behar gara".

Emakumeak meskitetan sar daitezke, baina Zumarragakora ez dira joaten. "Gizonezkoak eta emakumezkoak ezin gara elkarrekin egon. Hori dela eta, islamiar herrietako meskiten bi ate izaten dituzte. Hemen lokal txikia dugu eta ez dago guztiontzat tokirik. Gizonezkoak bakarrik etortzen gara".

Musulmanentzat ostirala da asteko egun handiena. Festa gehiago ere badituzte. "Ramadanaren ondorengo eguna ere jai handia da. Otoitz egiten dugu eta ondoren guztiok elkarrekin gosaltzen dugu. Zumarragako Udalarari eskerrak eman beharrean gaude, azken urteotan pilotalekua utzi baitugu jai hori ospatzeko", dio Elbouananik.

Bi hilabete eta hamar egun beranduago, arkumearen jai ospatzen dute. "Familia bakoitzak arkume bat akabatu behar du. Gure herrialdean etxean akabatzen ditugu, baina hemen harakinak ekartzen dizkigu hiltegitik. Haragi asko dugunez, etxerik etxe ibiltzen gara guztia jan arte".

Aipatutako hau guztia euren bizilagunen artean ezagutzera emateko saiakerarik ez dute egin. "Islama besteengana helarazteko lan egin beharko genuke. Gure seme-alaba askok, adibidez, ezer gutxi dakite gure erlijioari buruz. Lanetik nekatuta heltzen gara eta gure seme-alabekin ez dugu erlijioari buruz hitz egiten. Egunen batean meskitara etorriko dira, baina nahikoa ezagupenik gabe", aitortu du. Dena den, haurrek ere euren egoitzara joateko aukera dute. "Larunbat eta igandeetan arabiera eskolak izaten dira eta horietan erlijioari buruzko zer edo zer ikasteko aukera ere badute".

Zer irakasten du islamak? Zer ezberdintasun daude musulmanen eta kristauen

hilabete honetako gaia

artean? "Kristautzat Mahoma ez da profeta. Guk 127 profeta ditugu, tartean Jesus eta Mahoma. Islama heldu zenean, zenbait gauza aldatu ziren. Lehenago irudiei erreztatzen zitzairen eta guk ez dugu irudirik. Ala besterik ez dugu. Bera toki guztietan dago".

Katolikoek eta musulmanek antzeko aginduak bete behar dituztela dio. "Mundu guztiarekin ondo moldatu behar gara eta kalte egiten digutenei barkatu egin behar diegu. Ez dugu lapurtu behar, ez dugu gezurrik esan behar...", azaldu du.

Elbouananik erlijio agintaririk ez dutela dio. "Guztiok dakigu zer dagoen ondo eta zer dagoen gaizki. Beraiengana ulertzen ez ditugun kontuei buruzko azalpenen bila joaten gara, baina azalpena gustatzen ez bazaigu alferrik ari da. Erantzun guztiak koranean daude".

Imanak erlijioari buruz ikasi duten pertsonak dira eta batzuk besteak baino garrantzitsuagoak dira. "Kontuan izan behar da batzuek besteak baino gehiago ikasi dutela. Egipton, adibidez, oso eskola garrantzitsua dago. Aditurik handienak bertan eta Saudi Arabian daude. Dena den, Alak bakarrik eman ditzake aginduak. Imanek azalpenak eta aholkuak eman ditzakete, baina ez aginduak".

Gurasoek ere ezin omen dituzte seme-alabak euren erlijioa jarraitzera behartu. "Zazpi urte luzeko hiru garai daude. 0 eta 7 urte bitartean eurekin jolastu behar dugu, 7 eta 14 urte bitartean irakatsi egin behar diegu eta egoki jokatzera behartu behar ditugu eta 14 eta 21 urte bitartean euren lagunak izan behar dugu. Ondoren nahi dutena egiten utzi behar zaie. Aitak bere lana egin du eta ezin ditu bere erlijioa segitzera behartu", azaldu du.



Musulmanak Zumarragako meskitara sartzen.

Guraso gehienek, hemen eta han, euren seme-alabak egoki deritzoten moduan hezten saiatzen diren arren; mundua gaizki doa. "Islamak ez du hiltzen uzten. Egungo gizartea islamak dionetik oso urrun da. Ia dena gaizki dago eta ez dakit nola bukatuko den hau guztia. Toki guztietan gatazkak daude. Dena den, egia esan, hemen islamiar herrialdeetan baino lasaiago bizi gara. Bestalde, gazteak geroz eta desegokiago bizi dira: dirua gastatzea, erretzea, edatea... gustatzen zaie. Islamak hori guztia debekatzen du". Driss Elbouananik badaki zenbaitek ez duela bere erlijioa ondo ikusten eta pena ematen dio. "Min ematen dit. Zenbait gaztek kalte handia egiten digute, baina mundu guztian daude pertsona gaiztoak. Kaltea eragiten duten horiek guztiak ez

dira musulmanak, hori egitean islama alboratu baitute. Jainkoaren izenean hiltzen dutela diote, baina horiek mafia hutsa dira. Islamak suizidioa eta beste norbait hiltzea debekatzen du eta!".

Beste gauza batzuk ere debekatuak zein baimenduak daude. Dibortzioa, esaterako, kasu batzuetan bakarrik onartzen da. "Kontuan izan behar da seme-alabek asko sufritzen dutela. Pisuzko arrazoiak egon behar dute. Banantzea elkarrekin bizi baina hobea denean onartzen du banantzea epaileak". Abortua ere ez dago guztiz debekatu. "Hautzaroko lehen lau hilabeteetan abortatu daiteke, ama arriskuan badago". Ezkondu gabe elkarrekin bizi baina homosexualitatea, ordea, debekatuta daude.

Askok islamak emakumezkoak ere baztertzen dituela uste dute. Elbouanani ez da iritzi berekoa. "Emakumeek bete behar gutxiago dituzte. Eurentzat errazagoa da erlijioa jarraitzea. Hilekoa dutenean edo haurdun daudenean ez dute ramadana egin beharrik. Haurra jaio ondorengo egunetan ez daude otoitz egitera behartuta". Bestelakoan musulmanek bost bete behar dituzte. "Ala bakarra da eta Mahoma gure profeta, egunean bost aldiz otoitz egin behar dugu, ramadana egin behar dugu, bizitzan behin Mekara joateko ahalegina egin behar dugu eta urtero gure ondasunen %2 pobreei eman behar diegu".

Dena den, islamaren izenean emakumezkoak zapaltzen direla onartu du. "Harrikatzeak eta burkak ez dute islamarekin zerikusirik. Emakumezkoek ilea estali behar dute, baina aurpegia bistan izan behar dute. Aurpegia estaltzea debekatu dago, gizonezko batek engainurako erabili baitezake hori", amaitu du.

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



ALBISTEAK

- Behobia-Donostia: hurrengo urtera arte.
(Kirola / 11-12)
- Koldo Cadiemoren Antiori buruzko komikia.
(Erreportajeak/ 10-28)
- Gaur hasiko da *Urretxuar ibiltarien flaxa*.
(Kultura / 11-05)
- Gernikan atxilotutako gaztea aske da.
(Politika / 11-08)
- Etorkinentzako errefortzu saioak.
(Gizartea / 10-19)
- Zelai Ariztiko aparkalekuak zozketatuko dira asteazkenean.
(Gizartea / 10-15)
- Hamaika Bertutekoak gaztetxoek bertso eskolan.
(Kultura / 11-10)
- Bihar izango da Gipuzkoako Kantu Txapelketako kanporaketa.
(Besteak / 10-08)
- La vida de los otros* filma gaur gauean.
(Kultura / 10-26)
- Zumarraga eta Urretxuko udalek koordinatuta eta elkarlanean egingo dute lan.
(Politika / 10-26)

BIDEOAK

- Urola futbol taldearen spota.
- Igartubeiti baserriko *Sagardo Eguna*.
- Jon Maia Riomundori buruz hizketan.

AUDIOAK

- Mineralogia eta Paleontologia Astea *Norteko ferrokarrilean*.
- Gorka Azkarateren bertsoak entzungai.
- Gorka Hermosaren abestiak.

ARGAZKIAK


- Aintzane Arizmendiarieta Kenian.
- Jon Pol Agirre eta bere lagunak Baltikoan.
- Iñaki Lizarralde eta Ainhoa Cid: Maroko.

ALDIZKARIA

- Daniel de la Iglesia (Boteprontoan/130. alea).
- Zer dago Ibaiondon? (Erreportajea/124. alea).
- Bizitza osoa elkarrekin (Erreportajea/130. alea).

GIDA


- Merkataritza gida.
- Eskelak.
- Urretxu eta Zumarragako toponimia.





egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



“ETA convierte las obras del TAV en objetivo”

Eta beherago: “Los cabecillas de la kale borroka guardaban documentos sobre el TAV”. Diario Vasco egunkarian irakurri genituen hitz horiek, azaroaren 4ko edizioan. Uribe Kostan eta Donostian atxilotutako gazteei atzemandako dokumentuez ari zen kazetaria. Hainbat komunikabidek errepikatu zuten lelo maltzur hori, eta euren jokoa zein den garbi ikusi genuen. Iritzi publikoa lotsagabeki maneiatzen duten hedabideek, boterean ditugun agintariek eta poliziek Abiadura Handiko Trenaren kontrako mugimendua ETArekin eta kale borrokarekin lotu nahi dute. Gauzak bere onetik ateratzen ari garela esango digu norbaitek, baina hemerrotekei begiratu bat eman eta ikusiko duzue ez direla bi txorimaloren paranoYak.

AHTaren kontrako borroka kriminalizatzea dute xede eta, era berean, mugimendu hori betiko lau katuen “mobida” besterik ez dela konbentzitzen

saiatzea. Hartara, desinformazioaren tren horrek ekarriko duenaren aurrean oraindik zirkinik ere egin ez duen jendeak, bere neurrirako aitzakiak topatuko ditu beste behin: “Protestan ari direnak betikoak dira”, “Ni AHTaren kontra nago, baina borroka eredu horrekin ez nator bat. Beraz, geldi jarraituko dut”...

Beste batzuk, AHTari esker kamioi kopurua jeitsi eta Madril gertuago –bi ordu eskasera– izango dugulako poz-pezik daude. Euskal Herrian zehar garraio publikoan bidaia dezaten gonbidatzen ditugu. Madril gertuago izango dugu, baina Idiazabalek, Zarautzek, Gasteizek, Bilbok Lasartek, Iruñeak, Arbizuk, Galdakaok, Gerniak eta abarrek orain bezain urrun jarraituko dute.

Komunikabideek, hainbat enpresek eta erakundeek abiatu duten kanpainaren aurrean, Goierriko AHT Gelditu taldeko lagunek-eta tentuz jokatu beharko dute, arrazoia izatea ez baita nahikoa...

Urretxu eta Zumarragako zein txoko atsegin duzu gehien? Non egoten zara gustuen?




Rosa Zuazolazigorraga




Umea eduki nuenetik, dena aldatu da. Orain Antiora igotzea eta Belokiko itzulia egitea gustatzen zait. Izan ere, bidegorrian jende asko ibiltzen da. Lehen Irimora asko joaten nintzen, baina umearekin zailagoa da. Zumarragako liburutegi berria oso ondo dago haurrarekin joateko.

Benigno Gonzalez de Galdeano



Etxe-Berri jatetxea, adibidez, asko gustatzen zait. Hori has-teko. Etxean ere gustura egoten naiz. Lagunekin ateratzen naizenerako, berriz, ardo ona prezio onean ateratzen duten tabernak gustatzen zaizkit. Monumentuak? Ez dut gai horri buruzko jakintzarik, baina beste askok ere ez eta barra-barra hitz egiten dute.

Jose Luis Arruebo



Huts taberna asko gustatzen zait, musika ona jartzen baitute eta toki atsegina baita. Blues musika entzun daiteke, esaterako. Malkor taberna ere atsegin dut. Gustura egoten naiz bertan.

Ascen eta Arantxa Intsausti




Antio gustatzen zait gehien, inongo zalantzarik gabe. Baita Belokiko itzulia ere. Urretxuko tokiren bat? Egunero nahikoa denbora ematen dut Urretxun... (Ascen). Ezkion bizi naiz arren, Santa Barbara oso gustuko dut. (Arantxa).

Gaia: Behobia-Donostia lasterketari jarriak

Doinua: Kontzesirena

Beñat Torres




Hamahiru mila korrikalari
asmo eta ilusio,
korrikalari bakoitzari nik
zorte onena desio.
Ikuslegoak lasterketari
ikutu bat eman dio,
bere bultzadak egun honetan
askorako du balio.

Sufrimendua, mina, nekea,
hogei kilometroetan,
indarrak ere dagoeneko
aurkitzen dira azkenetan.
Baina jendetza ikusten duzu
Kursaaleko kuboetan,
korrikalari adina jende
bildu da espaloietan...

Nahiz txikienok igual ez izan
handien kategoria,
jolasa eta kirola gure
eguneroko ogia.
Bultza dezagun denon artean
txikienen Behobia,
horixe baita lasterkarien
benetako harrobia.

iritziz iritzi

Idoia Luzuriaga



Kazetari integrala

Kazetari integralak izan behar dugula esan digute. Nahi izateak hala egingo omen gaitu. Bost urte eman nituen kazetari titulua lortzeko baina integralarena egun batetik bestera konpondu da. Ziber-espazioan dena doa bizkorrago. Bestalde, Montserrat Boix TVEko kazetariak blogen eta Interneten erabilera onaren garrantziaz hitz egin digu lagun batzuei berriki. Boteredun erakundeen eta enpresen eraginetik at eta dirurik gabe sortu daitezkeen informazio guneak agerian jarri dizkiugu. Hori baliagarria izan daiteke, adibidez, emakume taldeentzat. Batak bestearekin "adiskidetu" nau ia-ia. Egundatik bestera *kazetari integrala* bihurtzeko ez nau konbentzitzen, ez baina teknologia berriak abiadura handiarekin barneratzen

dituen horietakoa. Baina teknologiaren demokrati-zazioak erakarri nau. Dena den, Boixi galdetu diot ea gai honetan trebatzeko zenbat denbora eskatzen duen: "Ibiltzea da sekretua, ekinaren ekinez ikasten da". Lasaiago nago, izan ere *integral* izatea "hala pentsatzen ikastea" omen zen eta hala pentsatzen jarrita ere ez nuen neure burua oso *integral* ikusten. Hori da artikulua honetan kontatu dezakedan guztia, nahiz eta Otamotzek atea irekitzen dizkidan bakoitzean beste zenbait gauza idazteko gogoia sortzen zaidan. Esaterako: zer dela eta talde batzuek beti jartzen dituzten prentsaurrekoak arratsaldeko 7etatik aurrera, egunkarien zierre ordua hain gertu dagoenean eta kazetariak egun osoa lanean daramanean?

1986

Ostadar taldekoak Anayet mendian

Ostadar mendi taldea bere 25. urteurrena ospatzen ari da egunotan. Hona hemen Zumarragako Zelai Arizti kultur etxeko erakusketa aretoan ikusgai jarri duten argazkietako bat.

Zutik: Felix Aleman, Josetxo Elortza, Jabi Arrieta, Josi Urrestarazu, Jose Luis Zaldúa, Patxi Urtzelai, Iñaki Mujika, Juanito Urtzelai, Iñigo Agirre, Iñaki Legorburu eta Javier Fernandez.

Makurtuta: Hilario Aranburu, Josu Perez, Jose Antonio Alfonso Txiki, Santi Usabiaga, ? Alberdi eta ?



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.


Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60




Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 baxua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



Lorea

Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



Lanbica

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52



Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



natural optics

URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU



TABERNA

Jatetxea

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA


Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premark.com



Construcciones

MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@mendiola.com
www.cmendiola.com



Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurria

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



alexandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

Herri Aldizkaria

Otamotz

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



Mariasun Landa

Krokodiloa ohe azpian

Goizean jaiki eta ohe azpian krokodilo bat aurkitzen duzunerako ondo etorriko zaizu liburu hau irakurrita edukitzea. Protagonista J. J. da eta "egundoko krokodilo tzarra" aurkitzen du, ohe azpira botatako oinetakoak jaten dituena. Hala, medikuak Krokodifil pilulak ematen dizkio sendatzeko. Hemen, galdera bat sortzen zaigu: sendatuko ote zaio Krokodilitis gaitza? "Krokodilitis gure garaiko gaitz bat da. Jendeak landatik alde

egin zuenez geroztik, bizimodu naturala, biziaren eta heriotzaren indar eternalekiko harremanak eten zituenez geroztik, hirietan pilatu eta bere izerdiaren eta lanaren fruitua besteren esku utzi zuenez geroztik...". Lortuko ote du bizipoza berreskuratzea? Iritsiko ote da Elena kafe bat hartzera gonbidatzera? Hortik aurrerakoa irakurleak atera beharko du, ipuinean barrena ibiliz..

Iñaki Bastarrika

Jabier Muguruza

Konplizeak

Askotan malenkoniarekin lotzen da Jabier Muguruzaren musika. Zuzenagoa litzateke ondokoa esatea: malenkonia eta tristezia kutsu bat badu bere musikak, baina baita beste hamaika kolore ere. Izan ere, emozioak, koloreak, kabitu ezinda bizi dira *Konplizeak* diskan (Elkar, 2007). Konplizeak ontzeko tristeziatik abiatu da. Orain gutxi hil zen bere aita eta horrek, halabeharrez, berebiziko eragina eduki du diskaren osake-

tan. Dena den, ezin esan abailduta nabaritzen zaionik. Bere azken laneko 11 kantetan, bada ironiarentzako edota umorearentzako tarterik. Bizitzaren kolore guztiak erabili ditu irundarrak. Testuak, berriz, Sarrirenak, Iñaki Irazurenak, Inazio Mujikarenak... dira. Baita Leire Bilbaorenak edo Angel Errorenak ere. Ederrak, artelana pintatzeko ezinbesteko zertzeladak.

Igor Susaeta



Felix Viscarret

Bajo las estrellas

Benito Lakunza (Alberto San Juan), ganora gabeko musikaria, alperra eta gonazalea, bizitzan noraezean dabilena, Nafarroako jaioterrira itzultzen da aitaren hileta elizkizunera. Bertan bere anaia Laloren (Julian Villagran) ezkontzaren berri izango du. Lalo apala eta ona da. Bere andregaia Nines da, bizitzak gaizki tratatu duen ezkondu gabeko ama. Benitok gaztetako parrandetatik eza gutzen du. Anaia babesteko, bikotea bana-

tzen saiatuko da. Ahaleginean Ainararekin topatuko da, Ninesen alaba. Neskato isil eta bihurri honekin ezohizko laguntasun erlazioa tratatuko du. *Gizartearen txatarra* bezala definitu ditu Felix Viscarretek bere lehen filmeko pertsonaiak. Sentimenduen aldeko apostua dugu eta Malagako zinemaldiko sorpresa izan zen. Ostiralean ikusgai izango da, 22.15ean, Zelai-Aritzin.

ButaK 21 zineklub taldea





Argazki hauek aurtengo Urretxuko jaietan ateratakoak dira.


Josu Perez



Jesus Iturbe: Urretxun enpresa gizona eta Zumarragan politikaria

Dagoeneko ez dago argi esaterik Jesus Iturbe Urretxukoa ala Zumarragakoa den. Urretxun jaio zen eta bertako hainbat ekimenetan parte hartu zuen: Txirimiri elkartearen eta Eliz-Alde futbol zelaiaren sorreran lagundu zuen eta Goierri kirol elkarteko pilota sekzioko arduraduna izan zen eta Egumendi enpresa ireki zuen. Ezkondu zenetik, ordea, Zumarragan bizi da. Hiru legealditan bertako Udaleko zinegotzia izan da EAJ alderdiarekin.

Jesus Iturbe bere etxeko egongelan.



Zumarragan bizi eta bertako zinegotzia izan zara, baina ez zinen bertan jaio.

Aurretik Urretxun aritu nintzen. Izan ere, bertan jaio nintzen: 1940an, Iparragirre 48ko Leandro Berriotxoaren etxean. 16 urterekin Txirimiri koadrila sortu genuen eta herriko ekimen guztietan parte hartzen genuen. 20 urterekin Eliz-Alde zelaia egiten lagundu genuen. Soldadutzatik itzuli nintzenez, 1963an, Goierri elkarteko pilota delegatua izendatu ninduten eta, urte berean, Gipuzkoako federazioak Goierri osorako delegatu jarri ninduen.

Urretxun horrenbeste lan egin eta gero, Zumarragara etorri zinen. Ez al zitzaizun inor haserretu?

Zumarragara etorri ondorengo lehen urteetan Urretxun jarraitu nuen lanean. Txirimiri elkartea ireki genuen, adibidez. Autoa gurasoen etxean uzten nuen eta mezetara ere Urretxura joaten nintzen. Alderdian eta, batez ere, udaletxean hasi nintzenezan *murgildu* nintzen Zumarragako errealitatean. Orduan hasi zitzaizkidan *Pero, si tú eres de Urretxu, ¿qué pintas aquí?* eta halakoak esaten. Zumarragan lan egitea tokatu zitzaidala esaten nien. Orain Urretxukoek Zumarragakoa naizela esaten dute eta alderantziz. Urretxun bizitzen gelditu izan banintz, seguru aski ez nukeen Zumarragako ezertan parte hartuko. Urretxuko udaletxean egongo nintzen, seguru. Urretxun oso gustura bizi izan nintzen eta Zumarragan ere hala bizi naiz. Bietakoa sentitzen naiz.

Zure gurasoek ez ziren ez batekoak ez bestekoak. Aita Aginagakoa zenuen (hura jaio zenezan Azkoitia zen) eta ama, berriz, Bidanikoa.

Aita oso langilea zen. Baso mutila zen eta

mendian zuen bere bizitza. Inguruko mendi eta lursail guztiak ezagutzen zituen. Egurra bildu, zerrategira ekarri, oholak egin eta saldu egiten zituen. Ama oso ona zen. Semearentzat ama ona da beti. Sukaldari oso ona zen.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Bidanian aitona-amonak eta osaba genituen. Arrebarekin joaten nintzen eta uda han ematen nuen, baserrian. Oso oroitzapen onak ditut, baina ordutik ez naiz askotan joan. Oroitzapen onak zapuztuko diren beldur naiz. Aginagara ere joaten nintzen, batez ere San Martinetan.

“Elkarte eta enpresetako

buruzagien lana jarraitzen

nuen eta batzuk baino lan

hobea egiteko gai

nintzela ikusi nuen”

Muxikako Lazarok anaia Antonek eta biok egurra ematen geniela esan izan dit, baina kaletarrek baserritarrei egurra ematea harrizkoa da.

Urretxu eta Zumarragako kontuak ere izango dituzu...

Eskola, eliza eta jolasak, hori zen gure bizimodua. Igandeetan *Hermanotara* joaten ginen zinea ikustera, hori zen asteko une desiratuena. Festak ere oroitzen ditut. Berezienak Santa Lutziak ziren. Diru gutxi genuen, baina gustura bizi ginen.

Aita aizkolaria zenuen. Zu ez al zinen sekula aizkoran saiatu?

Ez. Bakarrik nengoenean aizkora hartzen

nuen, baina ez nuen enborra azkar moztu. Aitak ez ninduen bultzatu. Eskolako kontuetan aurrera egitea nahi zuen. Kuriosoa da, berak Patrizio Etxeberriaren tailerrean enkargatu izateko aukera izan baitzuen eta muzin egin baitzion. Berak mendian lan egin nahi zuen, bere kasa, baina semeentzat ez zuen hori nahi. Sei seme-alaba zituen eta denentzat iritsiko ote zen beldurrez... Tailerra ireki genuenean, gustura etortzen zen.

Zer ikasketa egin zenituen?

Gutxi ikasi nuen. Oinarrizko ikasketak Urretxuko nazionaletan egin nituen. Maisua Don Mateo zen. Zekien guztia irakatsi zigun. Heziketa humanistiko ona eman zigula uste dut, baina matematikan herren gelditu ginen. Algebra ez zela behar esaten zigun... ez zekien eta!

Nondik nora ibili zara lanean?

14 urterekin Juan Unanueren tailerrean hasi nintzen. Berehala Madayara joan nintzen. Bederatzi urte eman nituen bertan. Han jaso nuen lanbide heziketa. Heldu nintzenez oso gutxi nekien eta lehen hilabetean hiru kilo galdu nituen, urduritasunak jota. Enpresa-buruek gau-eskolak ematen zizkiguten gazteoi. Urte haiek maitasunez oroitzen ditut. Luis Aginagaldek eta Jose Manuel Martinez Juanbeltzek gure formazioa nabarmen hobetu zuten.

Zer lan egiten zenuen Madayan?

Planifikazioaz eta ekoizpenaren jarraipenaz arduratzen nintzen. Palierrak egiten ziren gehienbat. Mila eredu baino gehiago zeuden katalogoan. Ia denak ezagutzen nituen. Aginagalde tailer buruak 486 modelo non zegoen galdetu zidan behin. Gehien egiten zena zen eta banekien non zegoen, baina hala ere fitxa begiratzera

Eusko Jaurlaritzako eta EAJ eta EA alderdietako ordezkariekin solasean, hauteskundeen aurreko ekitaldi batean.



joan nintzen. Non zegoen buruz jakin behar nuela esan zidan. Ordutik, ez zidan gehiagotan harrapatu. Aurrerago bulegoetara pasa ninduten. Makinaz idazten ez nekenez, lan orduetatik kanpo gelditzen nintzen ikasteko. Nagusiek oso ondo ikusi zuten hori. Oraindik mutikoa nintzela, erosketa-buru jarri ninduten.

Zergatik utzi zenuen Madaya?

Zuzendaritza gaizki ari zela ikusi nuen. Kutxiloak egiten zituen Apaolazarren lantegitik etorri ziren nire bila, baldintza onak eskaini zizkidaten eta Madaya uztea erabaki nuen. Penaz alde egin nuen. Izan ere, Madaya oso enpresa polita zen. 220 langile inguru zituen eta txatarrarekin denetik egiten zen. Apaolazarren lantegian, berriz, beste zortzi urte egin nituen. Bertan osatu nuen nire heziketa. Azkenerrako enpresaren zati bat nuen eta nire zatiarekin alde egin nuen. 1973an Egumendi sortu nuen Felix Urzelairerekin.

Zer egiten duzue enpresan?

Produktu berezia da: frikzio plakak egiten ditugu, tren lokomotora eta bagoietarako

eta autoetarako, indargetzaileak babesteko. Arratoiaren burua garela esan daiteke. 14-15 lagun besterik ez gara, baina gure ekoizpenaren %80 baino gehiago hemendik kanpo saltzen dugu. Europa osoan.

Luzaroan jarraitzeko asmoa al duzu?

Ez, ez. Felix erretiratura dago, baina sarritan etortzen da laguntzera. Nik semeari lekukoa pasatzeko asmoa dut. Bost urte eman ditu Iranen Orkli enpresarekin eta orain gurean hastea nahi dugu. Nik erretiratzeko adina pasa nuen jada: 67 urte ditut. Ia 54 urte eman ditut lanean!

Nolatan hasi zinen politikan?

Konturatu gabe izan zen. 1976 inguruan bileretara deitzen ziguten, baina ez nuen kasu handirik egiten. Izan ere, pilota munduan sartuta nengoen. Dena den, argi nuen nire hautua EAJ zela. Izan ere, gurasoak Agirre lehendakariaren Joseba Rezola idazkariaren lagun handiak ziren. Ordizian taberna izan zuten eta gerra garaian Batzoki klandestinoak izan zen. Nahi gabe nire burua alderdian lanean ikusi nuen. Mutikoa nintzenez elkarteta-

ko eta enpresetako buruzagien lana jarraitzen nuen eta horietako batzuk baino lan hobe egiteko gai nintzela ikusi nuen. Horrek enpresari izatera eta politikan sartzera bultzatu ninduen, besteak beste.

Zer kargu izan dituzu?

1979an pilota federazioko delegatu izate-tik EAJren udalerriko batzordearen presidentea izatera pasatu nintzen. Bestalde, 1983an zinegotzi izatea tokatu zitzaidan eta gertaera garrantzitsua izan da nire bizitzan. Ez nengoen zerrendan, baina Juan Mari Garitano zerrenda buruak ni ere aurkeztea ezinbesteko baldintzat jarri zuen. Zortzi zinegotzi lortu genituen, sekula lortu dugun emaitzarik onena.

Nolakoa izan zen legealdi hura?

Ospitaleko obra bukatu zen eta martxan jarri zen. Enpresariok lan handia egin genuen Zumarragan egin zedin. Garitanok zeresan handia izan zuen: ospitaleak bere izena eraman beharko luke. Horretaz gain, 83-87 legealdian udaletxea berri zen, erretiratuen egoitza egin zen, Argixaoko industrialdea abian jarri zen, IMI zentroa ireki zen, geltoki ingurua berri- tu zen, Ertzaintzaren egoitza ireki zen, Argixaoko kirol gunea egin zen... Hori guztia lau urtetan! Juan Marik jarraitu izan balu... Legealdi hartan gauza desatsegi- nak ere izan ziren: Madaya eta Orbegozo lantegien arazoak, adibidez.

Legealdi hartan EAJ alderdian zatiketa eman zen.

Azkeneko urtea ahazteko modukoa izan zen. Zinegotzi guztiok EAJren izenean jarraitu genuen lanean, baina gero batzuk EAJn jarraitu genuen, beste batzuk EAra joan ziren eta azkenak etxera. Batzokiarekin zein geldituko zen kanpoan erabaki zen eta hala askoz hobe izan zen.

Zuk EAJn gelditzea erabaki zenuen.

Egin ziren gauza batzuekin ez nengoen ados, baina hortik alde egitera... Hemen Garaikoetxea estima handian zuten eta EAJk indar handia galdu zuen. Gorriak ikusi zituen. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak San Andresetan izan ziren eta ozta-ozta irabazi genuen. Familia haustea bezala izan zen. Ni bete-betean harrapatu ninduen. Izan ere, Garaikoetxearen aldekoa nintzen lehen mugimenduak hasi zirenean. Asanblada nazionalen ordezkaria nintzen eta Arzallusek gela batera eraman gintuen. Bertan geundenok dagoeneko ez ginela alderdiko gipuzkoarron ordezkariak esan nion, gehienak beste aldetik zihozela. Gaia berriro afiliatuei aurkeztu behar zitzaiela eta haiek erabaki behar zutela azaldu nuen. Batzuek Garaikoetxearen aldekotzat jo ninduten, baina Arzallusek arrazoia eman zidan. Hori egin zen eta %60ak EBBren proposamenaren alde bozkatu zuen: Garaikoetxeak postua utzi behar zuela alegia. Aginte arazoa zegoen: ea nork agintzen zuen gehiago, alderdiko presidenteak ala lehendakariak.

1987-1991 legealdian ere zinegotzia izan zinen.

Ez nuen gogorik, baina alderdian jende faltan geunden. EAK bost zinegotzi lortu zituen eta guk hiru. Orduetik beti hiru lortu ditugu, baita Josu Jon zerranda buru aurkeztu genuenean ere. Josu Jonek Udala utzi ondoren, beste lau urte eman nituen zinegotzi: 1995etik 1999ra. Juanjo Sagarna, Mari Carmen Mendia eta hirurok izan ginen. Aurten hautsiko genuela uste genuen, baina orain ere hiru atera ditugu.

Askok aldatu al da udaletxeko lana urte hauetan guztietan?

Lehen lau urteak oso onak izan ziren eta

Mont Blanc du Tacul mendian Josu semearekin.



zinegotzien arteko giroa oso ona zen. Tailerrean kale egiten nuen, baina Felix bazkideak asko lagundu zidan. Gauzak asko aldatu dira: garai hartan inork ez zuen soldatarik, ezta alkateak ere. Oraingoa, toki batzuetan, eskandalua da. Lehen udaletxera ez zen inor dirua irabaztera joaten.

Oposizioa ere ezagutu duzu.

1987tik 1991ra Jose Julian Irizar izan zen alkatea. Alderdiaren zatiketa gertatu berria zen eta, gainera, lehen alkate liberatua izan zen. Gu aurka geunden eta gobernuan ez sartzea erabaki genuen. Ordura arte guk izan genuen alkatetza, deys kobratu gabe. Oposizioan sozialistak eta gu izan ginen eta gobernuan EA, HB eta EE. 1995etik 1999ra, berriz, gobernuan egon ginen. Orduan ere Industria batzordeburua izan nintzen. Antonek askatasun osoa eman zidan. Pisua genuen, Sagarna Kultura batzordeburua baitzen.

Zer zaletasun dituzu?

Mendia asko maite dut. Niretzat etxeokak dira politenak. Pirinioak ere ederrak dira. Bertako mendi asko igo ditut, berandu

hasi nintzen arren. Alpeetan, ordea, behin bakarrik izan naiz. Familia guztia joan ginen, Chamonixera, 1993an. Agurtzane eta Josurekin Mont Blanc du Tacul igo genuen. Josu semea alpinista da.

Eskiatzea ere gustuko duzu.

Alderdia zatitu zenean hasi nintzen. Mendi ibilaldiak ere oso gustukoak ditut. Fortuna elkarteak urtero 50 bat kilometroko martxa antolatzen du eta dezentetan parte hartu dit. 18 urterekin parte hartu nuen lehenengoz, beste hiru lagunekin. 2008an 50 urte betetzen dira eta ez dut kale egin nahi. Duela urte batzuk Donejakue bidea ere egin nuen, Agurtzane alabarekin. Bestalde, itsasoa ere gustatzen zait. Itzurungo hondartzan ordu pare batean ibili ondoren bainua hartzea zoragarria da.

Zer asmo dituzu etorkizunerako?

Laster jubilatuko naiz, baina orain arteko moduan jarraituko dut. Mendiak eta hondartzak zapalduko ditut, tailerrera joango naiz, alderdiko gazteei laguntza eskainiko diet, familiarekin orain arte baino denbora gehiago pasatuko dut, bilobekin jolastuko dut, lagunekin egongo naiz...

Mendizabal eta Cadierno: Baserrietatik historiara begira

Antxiñe Mendizabal idazleak liburua kaleratuko du aurki. Gerra Zibilari eta Zumarragako Trikitixari buruz jardun ondoren, oraingoan Zumarragako baserriak abiapuntu hartuta, herriko historiako hamaika gertakizun bildu ditu. Baserri bakoitzak bere atala du. Baita Koldo Cadiernok egindako marrazkia ere.

Antxiñe Mendizabal eta Koldo Cadierno, Gurrutxaga baserri ondoar



Nolatan sortu zen egitasmo hau?

Antxiñe Mendizabal: Banekien Jakak bere lana Udalei eman ziela eta ikusi nuenean sekulakoa egin zuela iruditu zitzaidan. Koldoren marrazkien berri ere banuen. Liburua egitea otu zitzaidan, Udalari proposatu nion eta onartu egin zuten.

Koldo, dirudienez, zuri ere egokia iruditu zitzaizun proposamena.

Koldo Cadierno: Eginda nituenez gain, beste hamabost bat marrazki egin behar izan ditut. Baserrri batzuk bigarrengoz marraztu ditut, oraingoan beste ikuspuntu batetik. Desagertutako asko ere egin behar izan ditut, garai bateko argazkietan edo margoetan oinarrituta.

A.M.: Dagoeneko desagertuta dauden baserriak liburuan ikusi ahal izatea gauza handia da.

K.C.: Zoritxarrez, ezin izan dugu batzuen inguruko irudirik aurkitu eta horien marrazkiak falta dira.

Zenbat baserri azaltzen dira liburuan?

A.M.: Sekula ez ditut kontatu... Ez dira ehunera iristen. Beste batzuen inguruko informazioa ere topatu dugu, baina ez dugu sikiera non zeuden jakiterik izan. Aurkitu ditugun guztien inguruko aipamenak daude.

Zein da liburuaren egitura?

A.M.: Baserrri bakoitzak bere inguruko istorioa eta marrazkia ditu. Horretaz gain, ilustrazio orokorrak daude. Gaiak jokoa ematen zuenean, berari buruzko marrazkiak sartu ditugu. Zumarragako parrokiaren eraikitze prozesua erakusten duena ikus daiteke, adibidez. Halako bospasei daude. Bestalde, liburua auzoka dago antolatuta. Bakoitzak bere azaltzokoa du, Zumarragako planoarekin eta baserrri bakoitzaren kokagunearekin. Zutik daude-

nak kolore batez ageri dira eta desagertuta daudenak beste batez. Zumarragan bost baserrri auzo daude: Aranburu, Elgarresta, Leturi, Soraitz eta Agiña. Liburuak hitzaurreak, baserrien indizea eta gaien aurkibidea ere baditu. Narrazioari dagokionez, estiloa zaintzen saiatu naiz. Erritmoa, zentzua eta ordena ulergarria ematen saiatu naiz. Zinematografiko samarra dela uste dut. Historia liburuetan, zehaztasun nahia dela eta, ez da narrazioa horrenbeste zaintzen.

Zer itxura izango du liburuak?

A.M.: Karratu samarra izango da eta berrehun orrialde pasatxo izango ditu. Bi bertsio aterako dira: euskarazkoa eta gaz-

Antxiñe Mendizabal:

“Guztia irakurritz gero, liburuak azken 500 urte hauen ikuspuntu globala eskaintzen du”

telerazkoa. Maketa eta diseinua asko landu da, irakurteraztasuna lortzeko. Forma oso garrantzitsua da niretzat.

Zer tirada izango du?

A.M.: Udalak diruz lagundu duenez, ale kopuru bat beretzat hartuko du. 1.000 ale inguru aterako dira.

Zer aurkitu dezakegu baserrri bakoitzari dagokion atalean?

K.C.: Ez da baserrri bakoitzaren deskribzioa egiten.

A.M.: Errazagoa da zer ez den esatea zer den esatea baino. Ez dut baserrri bakoit-

zaren historia bildu. Bakoitzaren inguruko istorioak ageri dira. Zumarragako historiari buruzko kronika batzuk dira, baserrikoak eta herrikoak, baina baserriak ikuspuntu-tzat hartuta. Errazena adibide bat jartzea da. Lehenengo baserrri horren inguruan aurkitu diren datuei buruzko sarrera txiki bat egiten da. Horrek Zumarragako historiaren pasarte bati buruz hitz egiteko aitzakia ematen dit. Landabururen kasuan, serorak aipatzen dira.

K.C.: Kasu honetan, serorek erlijioak zuen botereaz hitz egiteko aukera ematen dute.

A.M.: Baserriak aitzakia hutsa dira. Ez da genealogia liburua. Batzuetan jabea aipatzen da, besteetan maizterra eta beste batzuetan inor ere ez. Bestalde, ez dago orden kronologikorik. Baserrri batean XVI. mendeko istorioa aurki dezakezu eta hurrengoan XIX. mendekoa.

Nondik lortu dituzu datuak?

A.M.: Lan historikoa eginda zegoen. Artxiboan hiru lan oso garrantzitsu zeuden: Jose Luis Ugarteren *Urretxu eta Zumarragako Toponimia*, Anjel Kruz Jakaren *Paseando por todos los solares de Zumarraga* eta Udaltzaren artxiboan baserri buruz dagoen informazio administratibo guztia. Nik zer egin dut? Baserrri bakoitzari buruz zegoena arakatu dut. Ugarteren lana oso zientifikoa da. Hasieran ez duela ezertara eramango dirudi, baina baserrien historian murgildu ahala, datu horiek oso interesgarriak dira. Jakak, berriz, benetako landa lana egin zuen. Bera ibili zen baserriz baserrri. Nik zegoen informazioa dagokion testuinguruan kokatu dut. Gauzak interpretatu ditut. Ugarteren liburua zoragarria da, baina historia interesatzen zaionari ez dio balio. Jakaren liburuak balio handikoak dira,

baina ez du interpretatzen. Nik zeuden datuak interpretatzen ausartu naiz.

K.C.: Aipatu dituzun liburu horietan sartu zara eta bakoitzaren onena atera duzu, forma ezberdina emateko. Barojak nobela onak garai zehatz bat historia liburuak baino hobeto erakusten duela zion. Ados nago. Antxiñek ez du nobela egin, baina datuak bere testuinguruan kokatu ditu.


A.M.: Lan arriskutsua da. Zumarragaren historiari buruzko liburuetan datuak ageri dira, baina inork ez ditu azaltzen gertaera horien guztien testuinguruak. Ni gertaera horiek herrian, Gipuzkoan eta Euskal Herrian kokatzen saiatu naiz. Hori da interesatzen zaidana.

K.C.: Herritarrak baserrietatik herri gunera jaitsi zireneko trantsizio garaiak garrantzi handia du liburuan. Baserriak 500 urte ditu eta denbora horretan guztian gertatutakoa azaltzen da.

A.M.: Ez da kronologia bat, baina une garrantzitsuenak ageri dira: noiz handitu ziren baserriak, noiz heldu zen artoa, baserriaren gainbehera... Liburu honen gauzarik onena, guztia irakurriz gero, azken 500 urte hauen ikuspuntu globala eskaintzen duela da. Bestalde, Zumarragako historiako gertakizun garrantzitsuenetako batzuk ageri dira: baserrietik herrira eman zen pausoa eta Urretxurekin harremana.

Urretxuk ere bere tokia izango du liburuan, noski.

A.M.: Ez nintzateke harrutuko polemika sortuko balitz. Ez zait inporta. Urretxuren historiari buruzko liburuetan ezer gutxi ulertzen dut, datuak bere testuinguruan jartzea falta baita. Interpretazioa egiten ausartu naiz, horrek gauzak ulertzen laguntzen baitu. Urretxu burgesagoa zen



XIV-XVI. mendeetan Jauregi-Legazpi, Matxain, Mendiara eta Bitoriola burdinolak etekin handiak ematen ari ziren. Aipaturiko lehenengoa, Legazpi familiaren dorretxeko lur-sailetan zegoen eta, gainerako hirurak, Zuatzu inguruan, hain justu Deskarga mendatearen behealdeko parajeetan, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga elkartzan diren puntuan.

eta Zumarragak nekazal kutsu handiagoa zuen. Hori jakitea garrantzitsua da, bi bide ezberdin jarraitu baitzituzten. Urretxu bakarrik aipatzeak edo Zumarraga bakarrik aipatzeak ez du zentzurik. Marrazki batean ondo azaltzen dugu. 1450 inguruan Urretxu hiribildu gisa sortu zen eta Zumarraga sakabanutuagoa zen. Menditarra zen. Hiribildua nola sortu zen? Zumarragako ahaltsuenak elkartu ziren eta Lazkaoko jauntxoaren agindupetik ihes egiteko hiribildua behar zutela erabaki zuten. Sistema feudaletik irteteko eta hiritartasuna lortzeko modua izan zen. Gero, herri bakoitzak bere bidea jarraitu zuen.

Lan gogorra izan al da?

A.M.: Bi urteko lana izan da. Igandero Alaska tabernan elkartzan ginen eta gure interpretazioak egiten genituen. Hemen idazkaria bizi zen, hor txokolata egiten zen... esaten ibili gara. Lan nekagarria izan da, baina zorionez Koldo buru-belarri murgildu da eta sarritan berrindartu egin nau.

K.C.: Liburuan hipotesi asko daude.

Alperrik etorriko dira *maquina de la verdad* delakoarekin.

A.M.: Bildu ditugun datu historikoen interpretazioa da.

Zer da bi herriotako jendea gehien txundituko duena?

A.M.: Ezagutzen ez nituen gauzak aurkitu ditut. Legazpi aldean burdinolak daudela badakigu, baina Legazpi dorretxearen ondoan ere bazeuden. Inguru hartan jarduera ekonomiko garrantzitsua zegoen. Nekolalde dorrearen ingurukoa ere aipagarria da. Aurki Udalak horren inguruan enkargatutako liburua aterako du Maria Dolores Lakabek. Dorre hori saskigileen aldapa inguruan zegoen. Gu, lortutako datuekin, marrazkia egiten ausartu gara. Artxiobaren arabera, lau dorre eta armarrria zituen, erreka ondoan zegoen...

Zer gertatu zen dorre horrekin?

A.M.: Zumarragan hiru dorre izan ziren: Legazpi, Nekolalde eta Urruti. Azken honen kokapenari buruzko daturik ez dugu. Nire ustez, izena dela eta, Urruti baserria dagoen inguruan egongo zen. Kontuan izan behar da Urruti

Nekolalde dorretxea 1650 inguruan, berreraiki ondoren; Urola ibaiaren ertzean, Zubiaurre zubitik gertu, erret bidearen ondoan. Garai hartan, Nekolalde etxeak eta familiak galdua zuten Erdi Aroan izandako garrantzia. XVI. mendian Zumarragan bi dorretxe zirauten zutik: Jauregi-Legazpi eta Nekolalde.



Zumarragako baserri zaharrenetakoa dela. Bestalde, inguru hartan elkartu ziren eta erabaki zuten erregeari hiribildua eskatzea. Seguru aski, ez ziren eremu batean elkartuko... Etxeren batean elkartuko ziren eta ez herriko kaskarrenean... Nekolalde dorreari dagokionez, Erdi Arokoa zen. XIV. mendean zutik zen dagoeneko eta gotorleku modukoa zen. Aurrerago almenak izan zituen. Bertan armak izateko baimena zuten. Nobleek halako hainbat toki zituzten Gipuzkoan. Aurrerago, bandoen arteko gudak amaitu zirenean, erregeak dorre horiek mozteko agindua eman zuen. Nekolalde dorreak pixkanaka bere indarra galdu zuen eta desagertu egin zen.

Zein izan da zuek gehien harritu zaituzten datua edo gertakaria?

A.M.: Nire ustez Urretxu eta Zumarragaren garapenari dagokion informazioa oso garrantzitsua dira. Gipuzkoa bera nola garatu zen ulertzeko balio du: nekazal gizartea izatetik burgesa izatera nola pasatu zen. Orain arte Urretxuko historia eta Zumarragako bakoitza bere

aldetik aztertu dira, baina erabat lotuta daude. Datuek gauza batzuk besteekin lotzeko eta ideia orokorra lortzeko balio izan didate. Madrileko gorteetan euskaldun asko zeuden, baita zumarragarrak ere. Orain ulertu dut zergatik: garai hartako enpresariei komeni zitzaielako.

K.C.: Ez zara Zumarragako historia eskaintzera mugatu, dagokion garaiarekin lotu duzu.

A.M.: Gerra karlisten ondorio garrantzitsua, foruen galtzarekin batera, lur komunalen galtzea izan zen. Azken honek eragin handiagoa izan zuen herri-tarrengan, euren ekonomian eragin handia izan zuen. Nola heldu naizen horraino? Baserri bateko gazteak soldadutzara joan nahi ez zuelako. Hori da abiapuntua edo aitzakia. Horrek historia biziagoa egiten laguntzen du. Pertsonaiak egiazkoak dira, bere izen-abizenekin. Horrek guztiak historia guzti-arte egiten dugula erakusten du.

K.C.: Liburu bertako biztanleez mintzo da. Hori dela eta, guzti-arte interesagarria dela uste dut.

Zein izan da baserriaren garrantzia?

A.M.: Zumarragaren oinarrian baserriak daude. Hori beste herri askotan ere hala da, baina Zumarraga oso berandu bihurtu zen hiri. Bere ezaugarri feudal eta menditarrak oso berandu arte mantendu zituen. Jauntxoak gizarte feudalean oso ondo bizi ziren, baina batzuk azkarrak izan ziren. Hiri bat sortzea erabaki zuten, Urretxu, Lazkaoko jaunaren babesetik irteteko. Zumarragako familia askok baserria zuten Zumarragan, baina Urretxun ere etxea zuten. Bi sistemez aprobetxatzen ziren. Urretxu sortu eta urte asko pasatu ziren populatua izan zen arte. Batzar Nagusietan keza bat aurkeztu zen, erregea engainatu egin zutela esanez.

K.C.: Horrek urretxuartasuna eta zumarragartasuna baliogabetzen ditu: hasieran berberak ziren alde batekoak eta bestekoak.

A.M.: Dena den, pixkanaka interes kontrajariak agertu ziren. Alde batetik burgesiarrenak zeuden eta bestetik gizarte tradizionalarenak.

Nortzuk bizi ziren baserrietan?

A.M.: Maiorazkoa Euskal Herriko historian giltzarria da. Familia aberatsak geroz eta aberatsagoak egin zituen eta pobreak gero eta pobreako.

K.C.: Bestalde, familia bakoitzak bere baserria zuela pentsa daiteke, baina ez da hala. Asko errentan bizi ziren.

A.M.: Liburu honek mugikortasuna erakutsi nahi du. Baserria estatikoa zela dirudi, baina jabe gutxi zeuden eta alokairua ordaintzen ez zuten familiak bota egiten zituzten. Mugikortasun handia zegoen. Garai hartakoa biziraupen ekonomia zen.

Aitor Esnal: Futbolari gazteen ispilua

Aitor Esnal futbolari zumarragarra Urola taldera itzuli da, 35 urte betetzear denean. Barakaldon eta Beasainen ere aritu ondoren, azkenaldian Knauf-Decoraciones Nuñez lagun arteko Futbol-7 taldean ari zen. Urolako zuzendari-tzaren eskaintza onartu du eta bera baino askoz ere gazteagoak aurkitu ditu aldagelan.



Aitor Esnal, Miguel Fuentes Realako jokalaria eta presidente ohiarekin borrokan, *Musti* Mujikaren omenezko txapelketan.

Nolatan halako futbol zaletasuna?

Gehien gustatzen zaidan kirola da, baina gainontzeko guztiak ere gustukoak ditut. Jarduera berriak probatzea gustatzen zait, baina futbolean moldatzen naiz hobekien.

Hala izanik, azkar eta ondo hasiko zinen futbolean.

Lehen ostikadak mutikotan eman nituen eta, tokatu zenean, Urolara joan nintzen. Dena den, berandu hazi nintzen eta lagunak ni baino indartsuagoak ziren.

Atzelari postuan jokatu al duzu beti?

Umetan zelai erdian jokatzen nuen eta jubencil garaian ezkerreko hegalean. Ondo moldatzen nintzen eta gustukoa nuen. Gero zelai erdian jokatu nuen eta azkenik zentral postuan. Askok amaitzen dugu hor, jokoa suntsitzen... Hegalean ere gustura jokatuko nuke. Zelai erdian aritzea, ordea, zaila iruditzen zait.

Urolaren lehen taldera heldu zinenerako jokalaritza zaildua zinen.

Jubencil taldean nintzenez futbola utzi nuen ikasketengatik. Donostiara joan nintzen ikastera eta han zer edo zer aurkituko nuela uste nuen. EHUren futbol taldea oso itxia da eta ez nuen bertan jokatzeko izan. Lagunekin besterik ez nuen jokatzen, hondartzako txapelketetan eta antzerakoetan. Halako batean, Urolak bigarren taldea ateratu behar zuela esan zidaten eta bigarren urtean bertan jokatzea erabaki nuen. Erregionaleko bigarren mailatik lehenengora igo ginen. Gero, lehen taldean hasi nintzen: hirugarren mailan.

Barakaldon ere izan zinen.

Urola hirugarren mailatik jaitsi ondoren izan zen. Denboraldi aldrebesa izan zen. Entrenatzaile aldaketa egon zen, Zeziaga etorri zen, eta Urola atzealdetik seigarrena-edo gelditu zen. Normalean lau bat

jaisten ziren, baina urte hartan gehiago jaitsi ziren. Dirudenez, Durangoko taldearen entrenatzaileari nire jokoa gustatu zitzaion. Barakaldora joan zen eta ni eraman ninduen. Fitxaketa arraroa izan zen, baina Bigarren B mailara pausoa emateko balio izan zidan.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Oso urte polita izan zen, baina berezia eta eroa. Donostian lan egiten nuen, Unibertsitatean. Lau lagun joaten ginen Gipuzkoatik Barakaldora entrenatzera, egunero: Migel de Luz zumarragarra, Gorka Barral oiartzuarra, Jose Mari San

“Aurre-denboraldiak oso gogorak dira eta bizkarrak nahikoa dela esango zidala uste nuen”

Sebastian *Donosti* hernaniarra eta ni. *Donosti* oso xelebrea zen. Bere furgonetan joaten ginen Barakaldora. Denetik gertatu zitzaigun, istripua ere izan genuen, baina oso oroitzapen onak ditut. Gainera, ligan lehenengoak sailkatu ginen. Igoera fasea jokatzen ari ginela lesionatu egin nintzen eta ez zidaten kontratua berritu. Huelvako Recreativo igo zen, egun Lehen Mailan dagoen taldea.

Asko jokatu al zenuen urte hartan?

Ez gehiegi. Han ezagutu nuen partidak aulkitik ikustea zer den. Ordezko Errege Kopa jokatu genuen eta Osasunaren aurka aritu ginen. Etxean ira-

bazi egin genion. Denboraldiak aurrera joan ahala, gehiago jokatu nuen. Deportiboren eta Espanyolaren bigarren taldeen aurka aritu nintzela oroitzen dut. Gero bosgarren metatartsoko hezurra hautsi nuen. Deituko zidatela esan zidaten, baina oraindik zain nago.

Nora joan zinen?

Beasainen zentralak behar zituzten eta presidenteak deitu zidan. Oraindik igeltsua nuen fitxatu zidatenean. Pello Gibelalde oso presidente ona zen eta oso harreman ona izan genuen. Lau urte egon nintzen Beasainen, jaitsi ginen arte. Bizkarreko min handia nuen eta futbola utzi nuen. Urte eta erdian ez nuen jokatu. Gero zazpiko futbolean hasi nintzen.

Nolatan itzuli zara Urolara?

Badira bi edo hiru urte Urolako arduradunek taldera itzultzeko aukera eskaini zidatela. Hori dela eta, astean behin eurekin entrenatzen nuen. Iñaki Aranzadi entrenatzaileak ere jokatzen hasteko gogoaz nuen. Federazioak ez dio aldi berean entrenatzaile eta jokalaritza izaten utzi eta, azkenean, ni naiz beteranoena. Egia esan, ez nuen batere garbi. Izan ere, aurre-denboraldiak oso gogorak dira eta bizkarrak nahikoa dela esango zidala uste nuen. Oraingoan ondo nabil. Horretarako, zaindu beharra dut eta besteek baino gutxiago entrenatzen dut.

Zein da zuen helburua?

Taldearen helburu nagusia Preferente mailara igotzea da. Egia esan, aurre-denboraldian maila horretako taldeen aurka jokatu genuen eta ez dago alde handirik euren eta gure artean. Talde polita dugun arren, igotzea zaila da. Duela gutxi primei buruz hitz egin dugu eta halakorik ez dugula esan behar da. Arropa garbitzen



1996: Urolako taldekideekin, zutik eskubitik bigarrena, Mendizorrotza futbol zelaian.



Beasain taldearekin, makurtuta eskubitik hirugarrena.

digute, hori da gure saria. Bestalde, urteroko txangoa ordainduko digute mailaz igotzen badugu.

Taldeko zuzendaritzakoek esan al dizute zuek zer nahi duten?

Gazte jendeari esperientzia eskaintzea nahi dute. Ahal badugu ondo eta bestela ere bai. Lotura handirik ez diot jarri neure buruari. Nik futbolekin bizi izan dudana entzun nahi duenak horretarako aukera izango du. Entzun nahi ez duenak, ez du entzungo. Nire taldekideei zer irakatsi izango dut, baina beraiengandik zer ikasi ere bai. Futbolaz dena dakiela uste duena, gaizki dabil. Nik garai bat ezagutu nuen eta nire kideek beste bat.

Zer moduz hasi duzue denboraldia?

Talde polita dugu. Gauzak ondo doaz eta halakoetan giroa hobea izaten da. Iñaki Aranzadi entrenatzaileak sekula ezagutu duen talderik politenetakoa dela esan

zuen aurkezpen egunean. Zailena ordezkoa izatea da eta orain arte rol hori jokatu dutenek ere primeran bete dute. Jende asko ez nuen ezagutzen eta beste batzuk ere itzuli egin dira: Xabier Ormazabal, Jon Plazaola... Ni naiz seme-alabak dituen bakarra eta nire bizimodua besteenarekin alderatuz ezberdina da, baina ondo moldatu naiz.

Zure taldekide batzuek zuk baino 15 urte gutxiago dituzte. Ez al zizun horrek beldur apur bat ematen?

Jendeak nigandik espero zezakeenari beldur handiagoa nion. Beste talde batzuetan aritu naizelako, beteranoagoa naizelako... jendeak nigandik gehiegi espero izatearen beldur nintzen. Niretzat beste entzat baino zailagoa da hau guztia. 34 urte ditut! Nagitasuna ere nabaritu dut. Noizean behin 20 minutu korrika egitea ondo dago, baina astean hirutan entrena-

mentu gogorak egitea beste gauza bat da. Gazteek gorputzari buelta azkarrago ematen diotela ikusteak gogorra da. Aurre-denboraldia gogorra izan da: oportretan korrika egitera eta gimnasiora joan behar izan dut...

Futbolak alde gogorra ere badu, beraz.

Jende asko ez da horretaz konturatzen. Ronaldinho beti sasoian dagoela uste dute eta ez da hala. Hark ere prestatu beharra du. Guk gehiago oraindik. Gainera, futbolekin serio jokatu gabe horrenbeste denbora eman ondoren, gorputza nagituta zegoen. Oraindik ez nago sasoian eta ez dakit egongo naizen ere.

Dena den, titular hasi zara.

Hiru zentral gara. Ordezko izateak ez nau kezkatzen eta horretarako prestatuta nago. Hamaikakoan jartzen banaute ahal dudana egingo dut eta aldaketa eskatu behar bada, eskatu egingo dut.

Zer esan dizute ingurukoek?

Nire orain arteko taldekideek, Knauf-Decoraciones Nuñez taldeko beteranoek, zoratuta nagoela esan didate. Kontuz ibiltzeko ere esan didate, gorputza ez dagoela jada halakoetarako. Kaleko jendeak animuak eman dizkit. Poztu egin dira, Urolak fitxaketa ona egin balu bezala. Gertukoek ez zuten begi onez ikusi, baina konpondu dugu.

Orain arte Urolan, Barakaldon eta Beasainen aritu zara. Non ibili zara gustuen?

Ni Urolakoa naiz. Urolak hezkuntza eskaini dit eta bertan eman ditut urte gehien. Barakaldon emandako denboraldia oso polita izan zen eta Beasainen emandako lau urteak ere ezin ditut ahaztu.

Zenbat partida jokatu dituzu?

Urola partida gehien jokatu dituenen Iñaki

Aranzadi da. Nik zenbat jokatu ditudan ez dakit. Infantil mailan hasi nintzen, jubenil mailako taldean jokatu nuen, Hirugarren Mailan lauzpabost urtetan aritu nintzen, Bigarren Erregionalean beste bat... Zenbat gol sartu ditudan ere ez dakit... gutxi! Denbora asko neraman sartu gabe eta denboraldi hasieran bat sartu nuen.

Ba al dago bereziki gogoratzen duzu une pozgarriren bat?

Beasainekin Realaren aurka jokatuakopa Kopak kanporaketa. Etxean jokatu genuen, Santa Lutzi egunean. Garai hartan zinegotzia nintzen eta Udal ordezkariok bazkaria izan genuen. Arratsaldean bi eta bat irabazi genion Realari. Egun hartan ez nuen ohera joateko gogorik. Herrira itzuli eta festan murgildu nintzen.

Zein da futboleko bizi izan duzun unerik mikatzena?

Okerrena lesioak dira. Bosgarren metatartsoa Riazor zelaian hautsi nuen Barakaldorekin. Markagailuan hiru eta hiru... eta lau minutu falta ziren partida bukatzeko. Jarraitu egin nuen eta korer

“Asteazkeneko munduko

talde onenak ikusteko

aukera dugu eta geroz

eta zailagoa da Urola

ikustera joatea”

batean laugarrena sartu genuen ia. A Coruñatik Barakaldora hezurra hautsita itzuli nintzen, autobusez. Goizean joan nintzen ospitalera eta igeltsua jarri zida-

ten. Okerrena lesioak dira, baina jaitsierak ere gogorak dira. Zelaia burumakur uztea ez da batere gozoa.

Igoeraren bat ere ezagutu duzu...

Erregional mailako bigarrenengotik lehenengora. Oso polita izan zen. Azken partidaren kapitain izan nintzen. Alde Zaharra taldearen aurka jokatu genuen eta, kopa eman zidatenean, beste taldeko jokalariek altxatu egin zidaten. Argazkia gordeta dut.

Asko aldatu al da futbola urte hauetan guztietan?

Futbola ez. Argixaoko harmailak duen itxura, berriz, bai. Asteazkeneko munduko talde onenak ikusteko aukera dugu eta geroz eta zailagoa da Urola ikustera joatea. Gazteak aldatu egin direla esaten dugu askotan. Heldu heinean, egungo gazteak gure ezberdinak direla uste dugu, egungoek egiten dituzten gauzak ez genituela egiten, beste balore batzuk dituztela... Beharbada, lehen sakrifizio ahalmen handiagoa eta taldearekin lotura handiagoa zegoen. Balore horiek egungo gazteei pasatzerik badut, ondo. Dena den, kontuan izan behar da guk Hirugarren Mailan jokatu genuela eta horrek lotura handiagoa suposatzen duela.

Aldagelara sartu eta ondoan gazteak ikusten dituzunean, zure gaztaroz oroitzen al zara?

Entrenatzaileak 1988tik hona jaiotakoengatik galdetu zuen. 1988an jaiotako ume batek futbola zer den jakiterik ez duela pentsatu nuen. Ordurako 16 urte nituen! Jubenil mailako taldetik igo diren gazte isilak ikusten ditudanean, lehen taldearekin hasi nintzeneko garaiak oroitzen ditut. Lehengo batean kadete mailakoak begirabegira genituen. Guretzat ere lehen taldea helmuga zen. Ez zait halako gauzetan



1994: Alde Zaharra taldeko jokalarien besoetan, Bigarren Erregionaleko liga irabazi ondoren.


pentsatzea gustatzen, zahartu garen seinala baitira.

Zein izan da urte hauetan guztietan gehien markatu zaituen taldekidea?

Inguruko guztiek eskaini didate zer edo zer: umorea, seriotasuna, teknika... Bestalde, Realeko Zamora gustatu izan zait beti. Oraingoan artean, Ronaldinho izugarria iruditzen zait. Kirol profesionala nolako alaitasunarekin bizi duen ikustea pozgarria da. Jendeak futboleko gozatu egiten dela uste du, baina ez da beti hala. Zenbat eta gorago, orduan eta gutxiago gozatzen da. Lana da, irabazi egin behar da eta hala zaila da gozatzea.

Luzaroan jarraitzeko asmoa al duzu?

Semearekin talde berean jokatu nahi nuke, baina ez da posible izango. Denboraldi honetan bakarrik pentsatzen dut. Ez da komeni urrutira begiratzea, ez dakit gorputzak nola erantzun didan eta seme-alabekin egon nahi dut.



Alex Areizaga

Informatika

Negroogle edo Google beltza

Web orriak irekitzeak energia kontsumoa du. Web orri hori hondo zurikoa bada, kontsumo hori aharik eta handiena izango da, 74 watterkoa hain zuzen (kantitate hori behar du web orri zuri batek irekitzeko). Energia kontsumoa aurreztera begira, ekimen interesgarri bat abiatu dute sarean: www.negroogle.es. Orrialde hau, Googlaren kopia bat da, baina zuria izan beharrean, beltza. Hau da, positiboan egon beharrean, negatiboan dago. Modu honetan, Google beltza erabiliz, erabiltzaileko 15 watt gutxiago xahutuko ditugu zuria erabilia baino. Datu exkaxak dirudite, baina mundu mailara igorrita, atera dituzten kalkuluen arabera, guztiok Google beltza erabiliko bagenu urteko 75.000 \$ aurreztuko lirateke.



Deiane Perez

Osasuna

Ariketa fisikoa

Bizikletan paseatzea, ibiltzea, igeriketa, gimnasia, yoga, pilatesa, aerobica... gure gorputzerako mesedegarriak diren kirol-jarduerak dira. Ariketa fisikoaren onurak gorputzean eta arlo psikologikoan isladatzen dira. Gorputzean, koordinazioa, trebetasuna, muskulazioa, nekeari erresistentzia eta hezur dentsitatea handitzen laguntzen digu. Era berean, bihotzaren gaixotasunen prebentzioan, hipertentsioan, gizentasunean eta diabetean ere eragina du, osasuna mantentzen laguntzen du. Psikologikoki, egungo lanaren intentsitateak suposatzen duen estresa murrizteko modu egokia da ariketa fisikoa. Depresioa gutxiagotzen eta ongizate psikikoa eskaintzen du. Baina kontuz: planifikatu gabeko eta kontrolik gabeko aktibitate fisikoa suntsitzailea izan daiteke. Era sistematikoko eta erregular batean burutu behar da praktika. Argi izan orduan, nahiz eta ariketa fisikoak onura izugarriak izan, arriskuak ere badituela. Hortaz, kirol-iharduera bat aukeratzeko garaian pertsona bakoitzaren ezaugarri fisikoak, bizitzeko estiloa, adina eta osasuna eduki behar dira kontuan.

Amaia



Amaia zirkoko neska malabarista bat da. Kolore biziko lau pilotekin egiten ditu malabarismoak eta alboan Mixi katua izaten du beti laguntzaile. Honek zetazko lepokoa eramaten du soinean, bere ile zuriari bizitasun apur bat emateko eta dotorezia handiz mugitzen da neskaren inguruan. Amaiak gerrirainoko adats kizkurtua du, bi txirikorda finetan banaturik. Kopeta ile horiaren azpian ezkututzen dituen begi urdinetan lotsa eta umiltasuna islatzen dira nagusiki. Sudur zorrotzaren ondoan hiru orban ñimiño nabarmetzen zaizkio, neskaren gustukoak hirurak ere, nortasuna ematen diotela iruditzen baitzaio. Ezpain haragitsuek irribarre faltsu bat espresatzen dute neskatoaren aurpegi gozoan. Amaiak oso janzkera kurioa da. Niki bat baino gehiago janzten ditu elkarren gainean, zein baino zein ezberdinoak, baina, denak ere beso zabalekin malabarismoak erosotasun osoz egin ahal izateko. Erabiliaren erabiliaz urraturiko galtzak justu-justu iristen zaizkio orkatila argaletara. Oinetan, berriz, mutur zorrotzeko txapin zaharkituak daramatza, minberatutako behatzak luzatzen uzten ez dizkietenak. Oso isila da eta apenas hitz egiten du zirkoan lan egiten duten gainontzeko adiskideekin. Besteekin erlazionatzeko duen zailtasunak bakardadera bultzatu izan du maiz, eta une horietan Mixi izaten du lagun bakarra. Azken hau, leiala eta maitekorra da Amaiarekin eta, gainera, segurtasun handia ematen dio neguko gau haizetsuetan. Kolore eta irudi alaietara apainduriko karpa erraldoi baten azpian ematen duten erakustaldia ikusgarria izaten da benetan, eta bertan irri eta txalo zaparrada beroak jasotzen ditu neskatxak. Zirkoan lan egiteaz harro sentitzen da orduan, baina, apaltasunez eskertzen ditu laudorioak eta musu gartsu batekin agurtzen ditu denak bere esku zurixkaz agurtuz.

Maialen Igartua

DBHko 4. maila ikasten du Garaialde Lizeoan eta deskribapen hau klaserako egin zuen.

Alberto Lubian

Albertu Lubian urretxuarrak 39 urte ditu. Juan XXIII ikastetxean ikasi zuen, orain Gainzuri dena, 14 urte bete zituen arte. Etxean erlojuak saldu eta konpontzen dituzte eta horretan hasi zen lanean, bere aitarekin. Lan hori oso gustuko du eta horretan jarraitzen du. Dena den, eraikuntzan, segurtasun arloan eta lantegiren batean ere aritu da. Duela sei urte eta erdi Goierri elkartearen taberna hartu zuen bere arrebarekin eta luzaroan jarraitzeko asmoa dute. Bestelakoan, 'Resident Evil' bideo-jokoa oso gustuko du eta herrian zaletuen topaketaren bat egiteko asmoa du.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Umetan inork ez du gaizkilea izan nahi. Hori dela eta, suhiltzailea edo antzekoa izan nahi nuen.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Filmak ikustea eta bideo-jokoetan jolastea. Gehien gustatzen zaidana *Resident Evil* izenekoa da. Jendeak neska-mutikoentzako dela uste du, baina 30 urtetik gorakoentzat egokiagoa da.

Bizitzeko toki bat?

Urretxun oso gustura bizi naiz eta bertan jarraitu nahi nuke.

Zure bezeroei bezala kartetan jokatzeari eta purua erretzeari gustatzen al zaizu?

Ez, baina ondo moldatzen naiz eurekin.

Goierri lan egiteko kirol zalea izan behar al da?

Hori da, hain zuzen ere, gutxien atsegin dudana: bezeroek kirolaz hitz egitea.

Bezerekin tertulia ederrak izaten dituzu...

Jendearekin hitz eginez asko ikasten da. Batenak eta bestearenak hartuz gero, asko hobetu daiteke.

Ilehorriak ala beltzaranak?

Gustukoa baduzu, berdin zaizu ilehoria edo beltzarana den.

Egindako azken oparia?

Nire iloba Ainarari egin nion.

Eta jasotakoa?

Nire arrebak oparitu zidan txaketa berdea. Neskalagunik ez dagoenengan, familia da norberaz gogoratzen dena.

Data bat?

Ilobaren jaiotza eguna, 2003ko urriaren 13a, oso berezia izan



zen niretzat. Jainkoak, semerik ematen ez dizkionari, ilobak ematen dizkio.

Neska eta mutil izen bana?

Aitziber eta Aitor.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

DV, baina Goierri Gara eta Noticias de Gipuzkoa ere hartzen ditugu eta horiek ere begiratzen ditut.

Gustuko telebista saioa?

Lehiaketak atsegin ditut. *El negociador* delakoari probetxu handia ateratzen ari natzaio, eguerdietan baita eta tabernan bakarrik egoten bainaiz. Albistegiak eta filmak ere ikusten ditut.

Bereziki gorroto duzuna?

Saio asko eta asko desagertaraziko nituzke ahal izango banu.

Pelikula bat?

300 eta *Troya* asko gustatu zitzaizkidan.

Liburu bat?

Gustuen irakurri dudana Espainiak 1921ean Rif-en galdu zuen batailari buruzkoa da.

Soinu bat?

Txanponen txin-txin hotsa!

Usain bat?

Janariarena.

Janari bat?

Lekaleak. Haragia, berriz, gorroto dut.

Ura ala...

Onea eta osasuntsuena ura da, baina garagardoa ere gustuko dut eta noizean behin kopatxoren bat hartzen dut.



**SUKALDE
ERAKUSKETA**



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE